


ELGETAN EGINGO DA

# Mundumira 2011

ELGETA Debagoiena

JAIALDIA

**EUSKAL HERRIA ALDIZKARIAREN ETA DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEAREN ESKUTIK, MUNDUKO KULTUREN FESTAK BERE ZAZPIGARREN EDIZIOA OSPATUKO DU MAIATZAREN 27, 28 ETA 29KO ASTEBURUAN**



Zazpigarren urtez jarraian, Euskal Herria aldizkariak Mundumira jaialdia, Munduko Kulturen Festa, ospatuko du Debagoiena bailaran. Asteburu batez Gipuzkoako eskualde hori eszenatoki ireki itzela bilakatuko da. Aurten jaialdia Elgetara helduko da, maiatzaren 27, 28 eta 29ko asteburuan, aldean hamaika ekitaldi dakartzala. Dagoeneko festa honek bere lekua irabazi du Euskal Herriko kultur agendan eta milaka pertsonaren bilgune izaten da.

Euskal Herria aldizkariaren jaialdia proposamen ibiltaria da, lurrardearen, naturaren eta kulturaren arteko batasuna helburu, eta aurreko urteetan Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan, Bergaran, Eskoriatzan eta Antzuolan ospatu da. Mundumira kulturen arteko topaketa da, kale giroko jai erraldoia, bestelako kulturen erakusketarako eta parte hartze-rako agertoki handia. Gure helburua da Euskal Herria egun hauetan euskal kulturaren adierazpide askoren erreferente bihurtzea, munduko gainerako kulturekin bat eginda.

Musika, kale animazioa, natura eta gastronomia dira Mundumirako lau zutabe nagusiak. Aurkezten dizuegun egitarrauak hamaika proposamenen biltzen ditu bere baitan asteburu horretan gozatzeko, dela mendian oinez edo bizikletan ibiltzen, dela Debagoiena ezagutzen, musika kontzertuak, zirko eta antzerki lanak ikusten edo urrutiko jakia dastatzen. Besteak beste, Mundumiran munduko bazter askotako musikak izango dira, baita kale antzerkia, dantza, erakusketak, umeentzako olgetak, kirolak, azokak (mendizaletasuna, artisautza, nekazaritza biologikoa eta gastronomia) eta hamaika kontu gehiago ere.

Orotara 30 taldek animatuko dituzte Elgetako kaleak, musikaz eta antzerkiaz: **DELINQÜENTES, DUB INC, LA TROBA KUNG FU, JORGINHO, THE BILLIE JEANS, ANDRAKAN, ARTEA TEATRO...**

Musikaren atalean, Caixaren Gizarte Ekintzako Diversionen programaren eskutik kubatar doinuak helduko zaizkigu **HABANA CON KOLA** taldearekin eta afrobeat musika **MOYA KALONGO**rekin.

Umeei dagokienez, eurentzat beren-beregi prestatutako eremuaz gain -olgetak, tirolina, tailerrak eta bestelako erakarriak- aurten **IRRIEN LAGUNAK KLUBA**, Pirritx eta Porrotxen proiektu berria, Elgetan izango da. Eta ikuskizunetan **KUKUBILTXO** eta **BAPATEAN ZIRKO** nabarmendu daitezke, besteak beste.

Kirol arloan, **Euskadiko VI Boulder Txapelketa** egingo da. Bloke gaineko eskalada mota hori zapatuan izango da protagonista -maiatzaren 28an- eta Euskal Herriko espezialistarik onenak izango dira bertan.

Mundumiraren zutabe nagusien artean Elkartasun Foroa ere garrantzitsua da, GGKE askoren kooperazio proiektuen-tzat agertoki bikaina baita. Horregatik, eta dagoeneko ohikoa da, Mundumirako jai eremuan Euskal Herriko GGKE batzuen erakustokiak izango dira. Eta urtero legez, elkartasun kamixeta ere salgai paratu da, haren bitartez lortutako sosez eskualdeko hiru GGKEren kooperazio proiektuak sustatzeko asmoz. Gainera, zapatu gaeuan 'eusko label'dun txahala betiko erara erretzen hasiko dira, geroago pintxotan saltzeko. Hortik ateratako etekinak ere Debagoienako Mankomunitateak hautatutako hiru proiektuetara bideratuko dira.

**AURTENGOKO MUNDUMIRAKO PROIEKTUAK HONAKO HAUEK DIRA:**

- **Bubulum Elkartea** (Oñati). Jinotegan (Nikaragua) egoera larrian bizi diren ume eta gazteen bizimodua hobetzeko proiektua.
- **Salmenta Solidarioa** (Arrasate). Nanakanthari proiektua, ume hezkuntza, Gujaran (India).
- **Chiapas** (Eskoriatza). Chiapaseko indigenekin kooperazio proiektua (Mexiko).

**INFORMAZIO GEHIAGO ETA ELKARRIZKETAK:**

► BEATRIZ RODRÍGUEZ: 661 536 545; [bea@ginmusica.com](mailto:bea@ginmusica.com)


► IÑAKI REKALDE: 635 716 073; [euskalherria@euskalherria-aldizkaria.com](mailto:euskalherria@euskalherria-aldizkaria.com)

ELGETA ACOGE EL FESTIVAL

# Mundumira 2011

ELGETA Debagoiena

LA FIESTA DE LAS CULTURAS DEL MUNDO, UNA INICIATIVA DE LA REVISTA EUSKAL HERRIA Y LA MANCOMUNIDAD DE DEBAGOIENA, CELEBRA SU SÉPTIMA EDICIÓN EL FIN DE SEMANA DEL 27, 28 Y 29 DE MAYO



Por séptimo año consecutivo, la revista Euskal Herria celebra en la comarca de Debagoiena Mundumira, la Fiesta de las Culturas del Mundo que durante un fin de semana convierte a una localidad de esta comarca guipuzcoana en un gran escenario abierto. En esta ocasión el festival llega a Elgeta el fin de semana del 27, 28 y 29 de mayo, acogiendo los numerosos actos programados para los tres días en una fiesta consolidada en la agenda cultural de este país y a la que acuden miles de personas.

La fiesta de la revista **EUSKAL HERRIA** es una propuesta itinerante que busca la unión entre la cultura y la naturaleza en el territorio y que en sus anteriores ediciones se celebró en Arrasate, Oñati, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza y Antzuola.

Mundumira es un encuentro multicultural, una gran fiesta de calle, un gran escaparate, de exhibición y participación con otras culturas que queremos convierta a Euskal Herria en esas fechas en una referencia importante de la cultura vasca en muchas de sus expresiones, hermanada y conviviendo con otras culturas del mundo.

La música, la animación callejera, el disfrute de la naturaleza y la gastronomía son cuatro de los pilares de Mundumira. El programa que os presentamos recoge un buen número de propuestas para disfrutar de este fin de semana, practicando el montañismo o la bicicleta, conociendo la comarca del Alto Deba, asistiendo a conciertos musicales y espectáculos de teatro y circo o degustando exóticos platos.

Entre otras actividades contaremos con música de diferentes lugares del mundo, teatro de calle, danza, exposiciones, actividades infantiles y deportivas, ferias de senderismo artesanía, agricultura biológica y gastronomía, además de un largo etc.

En total, más de 30 grupos llenarán de música y color las calles de Elgeta, entre los que destacan: **DELINQUENTES, DUB INC, LA TROBA KUNG FU, JORGINHO, THE BILLIE JEANS, ANDRAKAN, ARTEA TEATRO**, etc, etc...

Dentro del apartado musical, el programa Diversions de la obra Social de la Caixa nos acercará la música cubana de la mano de **HABANA CON KOLA** y la música Afrobeat de la mano de **MOYA KALONGO**.

En el apartado infantil, además de contar con un espacio específico para los más pequeños con juegos, tirolina, talleres y otras atracciones, destaca la presencia de **IRRIEN LAGUNAK KLUBA**, nuevo proyecto de Pirritx eta Porrotx, así como las actuaciones de **KUKUBILTXO** y **BAPATEAN ZIRKO**, entre otros.

Dentro de las actividades deportivas del festival se celebrará el **VI Campeonato de Euskadi de Boulder**, disciplina de escalada sobre bloque que se desarrollará el sábado 28 y en el que tomarán parte los mejores especialistas de Euskal Herria. Otro de los pilares fundamentales de Mundumira es el Foro Solidario, un escaparate de los proyectos de cooperación de numerosas ONGDs. Por ello, y como es ya costumbre, Mundumira contará en su espacio festivo con una representación de stands de ONGDs que desarrollan su actividad en Euskal Herria. También como cada año, ha puesto a la venta una camiseta solidaria, destinando los beneficios que se obtengan con la misma a financiar tres proyectos de cooperación de ONGs de la comarca. Asimismo, durante la madrugada del sábado comenzará a asarse al estilo tradicional una ternera con 'eusko label', para su posterior venta en pinchos a lo largo del domingo, una iniciativa cuyos ingresos serán también destinados a apoyar los proyectos de cooperación seleccionados por la Mancomunidad de Debagoiena.

**LAS TRES ONGDs QUE RECIBIRÁN ESTE APOYO EN ESTA EDICIÓN DEL FESTIVAL SON:**

- **Bubulum Elkartea** (Oñati). Proyecto de mejora de calidad de vida de niños y jóvenes con extrema necesidad en Jinotega (Nicaragua).
- **Salmenta Solidarioa** (Arrasate). Proyecto Nanakanthari de educación infantil en Gujarat (India).
- **Chiapas** (Eskoriatza). Proyecto de cooperación en la zona indígena de Chiapas (México).

**MÁS INFORMACIÓN Y ENTREVISTAS:**

► BEATRIZ RODRÍGUEZ. TEL. 661 536 545 . ■ [bea@ginmusica.com](mailto:bea@ginmusica.com)

► IÑAKI REKALDE. TEL. 635 716 073 . ■ [euskalherria@euskalherria-aldizkaria.com](mailto:euskalherria@euskalherria-aldizkaria.com)